



ARANTZAKO UDALA

www.arantzau.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantzau.udala@terra.es

2012KO MAIATZAREN 4KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2012.05.04.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Imanol Artola Guridi jn.

Zinegotziak:

Jaime Iturria Mitxelena jn.
Ander Almandotz Indakoetxea jn., 3. puntuan sartu da.
Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn., 4. puntuan sartu da.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Alberto Echeveste Aizpiolea jauna: Lorbidoko Bordako obrak.
- 3.-Argiteria publikoa: auditoretzaren onespina.
- 4.-2012ko aurrekontuaren aldaketa: hasierako onespina.
- 5.-Arantzako ehiza kotoaren berriztapena.
- 6.-Arburua Lukanbio sendien eskaera.
- 7.-Ezkontza zibilak eta hildakoen agurrak edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza: behin betiko onespina.
- 8.-UEMA: ordezkariaren ordezkoa izendatzeko eskaera.
- 9.-Tellechea Echeverria senideak: bideari buruzko idatzia.
- 10.-Obren txostenen kostoa.
- 11.-2011ko kontuak: aldeko txostena.
- 12.-Alkatearen ebazpenak.
- 13.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2012ko apirilaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ALBERTO ECHEVESTE AIZPIOLEA JAUNA: LORBIDOKO BORDAKO OBRAK.

Gai honi buruz aurreko bileran erabaki zen Udaleko abokatuei eskatzea Udaleko akordioarekin ados dagoela adierazten duen idatzia aurkeztea.

Aditzera ematen da Alberto Echeveste Aizpiolea jaunak onartu duela jarritako isuna eta bordaren baldintzak eta idatzia bidali duela hori aitortzen.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna sartu da bilera aretora.

3.-ARGITERIA PUBLIKOA: AUDITORETZAREN ONESPENA.

Arantzako Udalak diru laguntza eskatu zuen herriko kanpoko argiteriaren auditoretza egiteko eta TECSINOR S.L. enpresari esleitu zen lan hori egitea.

Diru laguntza deialdiak auditoretzaren onespena hartzea eskatzen du baino lana ordaindik ez da jaso.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Bertze bilera egitea gaia aztertu eta onartzeko.

4.-2012KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

Argiteri publikoaren inbertsioa egiteko aurreikusi behar da aurrekontuan partida bat.

Kontuan hartuz oraindik ez dakigula diru laguntzak eta inbertsioaren kopurua, mahai gainean uzten da.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn. sartu da bilera aretora.

5.-ARANTZAKO EHIZA KOTOAREN BERRIZTAPENA.

Idazkariak azaldu du Batzorde Paritarioak 2012ko martxoaren 7an egindako bilera eta hartutako akordioak, ehiza barrutirako baldintzen plegua onartzea bertzeak bertze.

Koldobike Gorostiza andreak eta Imanol Artola jaunak ez dira ados agertu baldintza pleguan ezarritako epearekin, 10 urtekoa, eurek aurreko bileran ere 4 urteko epea ikusten zutelako komenigarria legealdia berriarekin eta Udalaren aldatzarekin bat egiteko eta horrela korporazio berriak baldintzak aztertu eta euren iritzia eskatu ahal izateko.

Gaineko zinegotziak alde agertu dira.

Kontuan hartuz Arantzako ehiza barrutia eratzeko iragarkia argitaratu zela 2012ko martxoaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (59. alean) eta herriko tauletan ipini eta lurren jabeek ez dutela beren lurak barrutian sartzeari uko egin.

Ondorioz, eta gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

- 1) Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuari eskaera egitea Arantzako udalerriko lurak ehiza barrutian eratzeko.
- 2) Arantzako Udala izendatzea ehiza barruti honen titularra bezala.
- 3) Ehiza barrutiaren iraupena 2022ko ekainaren 1a arte ezartzea.
- 4) Ehiza probetxamendua esleitzeko baldintzak onartzea. Esleipena zuzena izanen da, hau da, Tokiko Ehiztarien Elkarteari (Usua Kirol-Ehiztarien Elkartea).



ARANTZako UDALA

www.arantzako.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantzako.udala@terra.es

6.-ARBURUA LUKANBIO SENDIEN ESKAERA.

Arburua Lukanbio sendiak aurkeztutako eskaera aztertu ondoren, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Bilera bat egitea eskatzaileekin gaia aztertzeko zuzenean.

7.-EZKONTZA ZIBILAK ETA HILDAKOEN AGURRAK EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA: BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2012ko martxoaren 2an egindako bileran, ezkontza zibilak eta hildakoen agur eta omenaldi zibilak arautzeko ordenantza hasiera batez onartu zuen.

Akordio jendaurrean egon da (2012ko martxoaren 26ko 59. Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz eta herriko tauletan) eta ez da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik izan.

Ondorioz, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Ezkontza zibilak eta hildakoen agur eta omenaldi zibilak arautzeko ordenantza behin betikoz onartzea.

8.-UEMA:ORDEZKARIAREN ORDEZKOA IZENDATZEKO ESKAERA.

Ikusirik UEMAk bidalitako idatzia,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Jaime Iturria Mitxelena jauna izendatzea UEMako ordezkariaren ordezkoa.

9.-TELLECHEA ECHEVERRIA SENIDEAK: BIDEARI BURUZKO IDATZIA.

Tellechea Echeverria senideek aurkeztutako idatzia aztertu da. Bertan azaltzen dute eurena den 5. poligonoko 918. lur zatia pasorik gabe gelditu dela, 5. poligonoko 84. lur zatia itxi ondoren. Halaber eskatzen dute zeuden pasoak berriro jartzea, euren terrenora ailegatu ahal izateko.

Idazkariak azaldu du katastroko planoetan ez dela biderik agertzen.

Gaia argitzeko eta informazio gehiago jasotzeko, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Herriko bizilagunei lekukotasuna ematea horri buruz eta, hori lortu ondoren, 5. poligonoko 84. lur zatiaren jabeari lehen bezala uzteko eskatzea.

10.-OBREN TXOSTENEN KOSTOA.

Alkateak planteatu du ordenantza bat prestatzea Udaleko arkitektoen kostoa obren sustatzaileei kobratu ahal izateko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Gaia aztertzeko ereduak biltzea eta zinegotziei bidaltzea.

11.-2011KO KONTUAK: ALDEKO TXOSTENA.

Gaia mahai gainean utzi da espedientea bukatu arte.

12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.


Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 25.netik 33. arte).

13.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,



Imanol Artola Guridi jn.

